



## “Ez dut denetan jator eta sinpatika agertu nahi”

Ines Osinaga | Naiara eta Ines-eko Ines

Gose etorri da.  
“Azken eslogana, azken putakumearentzat...”

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

### Zer da probokazioa?

Batek baino gehiagok entzun nahi ez dituen baina batek baino gehiagok pentsatzen dituenak esatea.

### Estrategia komertziala, orduan?

Hala bada une batean nahastuko zara, hanka sartuko duzu, eta orduan, “dena gezurra zen!” esango dizute.

### Ordurako disko guztiak salduta badaude, bost axola!

Guri ez zaigu zenbat saltzen dugun inporta. Ez ditugu diskoak saltzen, guk diskoak egiten ditugu. 5.000 ala 500 saldu berdin zaigu. Hori bai, nahiago dugu 50 kontzertu eman 3 baino.

### Ala! Arreta-gunea izatea gustatzen zaizue!

Oholtzan gaudenoi gustatzen zaigu jendea begira edukitzea. Exibizionista puntua dugu. Tabladura igotzen jakin behar da, “ni goian nago eta zu behean zaude” esaten. Kontzertua amaitzean, ordea, ez da tabladutik jaiste ahaztu behar.

### Zein ondo gelditu zaizun jakingo bazenu...

Hemen ez dago bazarrik. Kontzertua dagoeanean kontzertua dago, gora igo eta dena eman. Zure problemak ez zaizkio inori inporta. Zu ikustera datorrenak ere izango ditu arazoak, baina etorri egin da.

### Zuen estetika fashion-ak erakarriko zuen!

Estetika koherentea eramatea oso garrantzitsua da. Komunikatzeko beste modu bat da.

### Eskua okotzean jarri eta “interesgarria” esatea nahi duzu?

Anbiguotasun eza transmititu nahi dut. Txuriak ala beltzak gustatzen zaizkit, grisak ez. Gose-n detaile bakoitza halakoa da halakoa izatea nahi dugulako.

### ETBk zuen kanta bat zentsuratzea nahi zenuten, beraz?

Morboa eman zidan eta “tira, zerbait ondo egin dugu” pentsatu nuen. ETBk duen pentsatzeko moduarekin, eta gauzak egiten dituen bezala eginda, normala iruditzen zait gauza batzuk zentsuratzea.

### Zentsurak morboa eman bazizun, handik urtebetera, EITBren egoitza berria inauguratzeak...

Sekulakoa. *Eutsi!* pelikularen aurkezpenean dantzan zebiltzan korbatadunei esan nien bezala: “ai inorantzia felizitatea da, putakume bat baino gehiago ez da konturatzen putakumea dela”.

### Gose konturatzen da kooperatiba dela?

Erabat. Sortutakoa jabetzan ez edukitzearekin asko identifikatzen gara.

### Ez esan sortu duzun irudiak transmititzen duenaren jabe ez zarenik...

Sexuari buruz kantatzen dudalako ez naiz egun osoa, hankak zabalik, datozen guztiei larrua jotzeko prest bizi. Ez. Baina jendeak beste zerbait pentsa dezan, ez dut eman nahi ez dudan irudia. Ez dut denetan jator eta sinpatika agertu nahi. ■